

2017KO URTARRILAREN 10EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren 10a izanda, arratsaldeko zazpiek eta hiru zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen abenduaren 7ko ohiko bilkuraren eta abenduaren 20ko ez ohiko bilkuraren aktei buruz. Horren kopia helarazi zitzaien Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako akta aho batez onartu egiten da. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, A.J.A. 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Garcia de Acilu jaunak eskatu du bilkura deien epeak gordetzen saiatzeko.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
209	2016/12/01	OBREN LIZENTZIA EMATEA SAMUEL PICAZA PLAZAN ZAHARBERRITZE LANETARAKO
210	2016/12/05	OBRA-LIZENTZIATEN LUZAPENA ONARTZEA
211	2016/12/05	UDAL ATERPETXEKO OBREN ZUZENDARI-ARKITEKTUA ESLEITZEA
212	2016/12/05	ATERPETXEKO OBREN ETA SEGURT. ETA OSASUNA ZUZENDARI-ARKITEKTU TEKNIKO ESLEITZEA
213	2016/12/12	AFA TURISMO DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA
214	2016/12/13	OBRA TXIKIAK DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA
215	2016/12/14	BANKU TRANSFERENTZIA
216	2016/12/15	KIROL ESPARRUKO ZAHARBERRITZEAN OSASUN- ETA SEGURTASUN-PLANA ONARTZEA
217	2016/12/15	UDAL ATERPETXEKO OBREN ESLEIPENA
218	2016/12/15	OBREN LIZENTZIA EMATEA OTEOKO ADMINISTRAZIO BATZARRARI BIDEAK KONPONTZEKO

219	2016/12/15	GAINBALIOEN KITAPENA
220	2016/12/15	OBREN LIZENTZIA EMATEA OTEOKO ADMINISTRAZIO BATZARRARI BIDEAK ZAHARBERRITZEKO
221	2016/12/16	EZ-OHIKO BILKURA DEIA
222	2016/12/20	OSASUN- ETA SEGURTASUN-PLANA ONARTZEA ATERPETXEAREN ZAHARBERRITZERAKO
223	2016/12/20	BERGUILLAKO SANEAMENDU-ERROLDA ONARTZEA
224	2016/12/20	HOBARIAK EMATEA IBILGAILUEN ZERGAN
225	2016/12/21	SAN MARTIN AZOKAKO ORDAIN-BIDALKETA
226	2016/12/22	ENERGIA-ERAGINKORTASUNA PROIEKTUKO ORDAINSARI-BIDALKETA
227	2016/12/27	GAINBALIOEN LUZAPENA
228	2016/12/28	TXAKUR ARRISKUTSUAK IZATEAGATIK INFORMAZIO ESPEDIENTE IREKITZEA
229	2016/12/28	LAN-EGUTEGIA ONARTZEA
230	2016/12/28	BANKU-TRANSFERENTZIA ONARTZEA
231	2016/12/30	UDALAGUNTZA 2016 DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA - ATZEKALDEKO ITXIERAK
232	2016/12/30	UDALAGUNTZA 2016 DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA – GASOIL-TANGAREN DESKONTAMINAZIOA
233	2016/12/30	UDALAGUNTZA 2016 DIRU-LAGUNTZETAN KONKURRENTZIA – JANTOKIKO AKUSTIKA HOBETZEA
1	2017/01/09	2017KO URTARRILAREN 10EKO OSOKO BILKURA DEIALDIA

3.- HASIERAKO ONARPENA JAIOTZENGATIKO 2016KO DIRU-LAGUNTZEN EBAZPENARI, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

Seme-alaben jaiotzagatik diru-laguntzak ematea arautzen duen 2016ko Udal Ordenantza ikusirik

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren ebazpen-proposamena aurkeztu da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute:

LEHENA.- Seme-alaben jaiotzagatik 2016ko laguntza-emate proposamena onartzea administrazio-espeditentean jasotako datuen arabera.

BIGARRENA.- Akordioaren berri indibidualki ematea; baita Udalaren iragarki taulan eta www.campezo.eus web orrian ere argitaratu.

4.- 2016KO KONTU-HARTZAILETZAK EMANDAKO AURKAKO ERAGOZPEN TXOSTENAK ADIERAZTEA.

ZIOEN AZALPENA:

Toki-administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko 2013ko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak aldatu ditu Toki Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategineko zenbait artikulua; hain zuzen ere, Kontu-hartzaitzak osoko bilkuran jakinarazi behar dituen txostenak.

Hortaz, Toki Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bateginekoaren 218 artikulua (27/2013 legeak aldatuta) ezartzen du:

“Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio”

Hortaz, Udalbatzako Kontu-hartzaileak adierazten du 2016ko ekitaldian ez dela burutu inolako eragozpen txostenik gastu eta sarreraren kontuetan.

5.- BATZORDE EKONOMIKOAREN ESTATUTUAK BERRESTEA, EGOKIA BADA.

ZIOEN AZALPENA:

2016ko abenduaren 27an egindako Ekonomia Batzordearen bileran onartu ziren Mendialdea ikastetxeko partzuergoaren estatutuak ikusirik.

Entitate honi helarazitako zirriborroan aldaketa nabarmenik ekartzen ez dituzten aurkeztu diren alegazioak ikusirik.

Udaleko osoko bilkuran onartu ziren estatutuak berresteko beharra ikusirik.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

XEDAPENAK:

AKORDIOA: Bertaratuek aho batez onartu dute.

LEHENA.- 2016ko abenduaren 27an egindako Ekonomia Batzordearen bileran onartu ziren Mendialdea ikastetxeko partzuergoaren estatutuak berrestea.

BIGARRENA.- Berrespen-agiria ikastetxeetako Ekonomia Batzordeari igortzea.

HIRUGARRENA.- Alkate Andreari ahalmena ematea akordio honen garapenean beharrezkoak diren agiri guztiak gauzatzeko.

6.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotziak, gabonetako jardueren balorazioa egin du, guztira 200 pertsonak baino gehiago parte hartu dute boluntarioekin batera Udalak sustatu dituen Olentzeron eta Erregeetan.

Mus eta briska txapelketan, Orbison, 44 parte hartzaile egon ziren.

Iaz, udal gazetarekin egutegi kulturala banatu zela aipatu du. Aurten, ordea, hilabeteka banatuko dira.

AEK-k bilera irekia egin du martxoaren 6an goizaldeko 6:00etan pasako den Korrika antolatzeko.

Gaurtik aurrera, eta antolatzaileen eskaera baimendu ondoren, spinning kultura-etxeko lokaletan egingo da. Herrador jaunak galdetu du ea ordaindu behar duten, eta erantzuna: indarrean dagoen ordenantzak ezartzen duena.

Otsailean, helduei zuzendutako sukaldaritza tailerra egin nahi da, baina datak zehaztuko dira.

Arenaza andreak, Gizarte arloko Zinegotziak, aipatu du kartel digitalen lehiaketa ireki dela, aurreko urtean bezala.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Enplegu zinegotziak, adierazi du aurreko ekitaldiko kontuak ixten ari dela prest duenean egikaritze egoera aurkeztu ahal izateko.

Futbol zelaiaren inguruan, AFAk baieztatu du dagokigun zenbatekoa, 200 mila euro inguru, non udalak jarri behar ditu 80 mila euro; hortaz, proiektuak 280 mila euroko kostua izango du, gutxi gorabehera, esleitu baino lehen. Proiektua garatzen ari da ahalik eta azkarren esleitzeko.

Ruiz de Loizaga jaunak, Hirigintza Zinegotziak, azaldu du abenduaren 14an egon zen jardunaldia; lhobek antolatu zuen kontratazio berdearen inguruko jardunaldia kontratazio pleguetan ingurumen irizpideak ezartzeko.

Abenduaren 16an, Izkiko Parke Naturelean bilera egin zuten aurrekontuak, jarduerak eta parkearen erabilera eta kudeaketa planari buruz.

Kuadrillako bileran likidazioa aipatu zuten, eta 2015ean gure Udalak 38 mila euro ordaindu ditu, Udalen TEFFF-aren bitartez (Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza) Udalek jaso duten %9 baino gutxiago. Alegia, gure entitatearen aldeko 4.800 euroko saldoa, urteko kuotatik kendu egingo dena. Jakina denez, horri aparejadorearen hirigintza zerbitzuengatik gastua gehitu behar zaio.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Alkateak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten; Garcia de Acilu jaunak eskatu du informazioa etxebizitza baten atean jarritako edukiontzien egiturari buruzko agiriaren inguruan.

Alkateak adierazi dio idazkian kexa aurkeztu dela esandako egituraren kokapenagatik, etxearen atean bertan; hortaz, etxetik ateratzeko errepidea zapaldu behar du. Hirigintza zerbitzuek gaia aztertzen ari dira, eta erantzunaren zain daude.

Garcia de Aciluk esan du ez ote dagoen toki zabalagoa hilerriaren bidean.

Garcia de Acilu jaunak beste kexa aipatu du Berguillako areken garbiketari buruzkoa.

Alkateak adierazi du interesdunekin hitz egin dela, eta neurtuko dutela soroetan sartu diren ala ez argitzeko, eta datuak eskuratuko direla lurzatien bilketako datuekin.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko zazpiak eta hogeita bost minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.